

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

416/2016 Foru Agindua, azaroaren 7koa, Beatriz Carrero Vegas izendatzen duena aldi batez Laudioko Udaleko idazkari lanpostua bete dezan, 2016ko azaroaren 25ean eta 2016ko abenduaren 28tik 30era (biak barne)

Laudioko Udalak atal honi jakinarazi dio aldi baterako izendapen horien beharra daukala, aipatutako epe horietan udal idazkari M^a Aranzazu Lili Salazar ordezkatzeko.

Horregatik guztiagatik, proposatzen da aldi baterako izendatzea Laudioko Udaleko Funtzio Publikoko eta Lan Harremanetarako Atalaren buru Beatriz Carrero Vegas Andrea, hain zuzen ere 2016ko azaroaren 25erako eta 2016ko abenduaren 28 eta 30 tarterako (biak barne).

Bat etorritz gaikuntza nazionaleko toki administrazioi funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzko Errege Dekretuaren 33. artikulua xedatutakoarekin (1732/1994 Errege Dekretua, uztailaren 29koa, beste honek eman zion idazkeraren arabera: 834/2003 Errege Dekretua, ekainaren 27koa).

Kontuan hartu da Toki administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko Legeak (27/2013 Legea, abenduaren 27koa) 25. artikuluan xedatutakoa —Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legea, 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, aldatzen du 27/2013 lege horrek, 92.bis artikulua berria sartuta, non finkatzen den toki korporazioetan aldi baterako halabeharrezko langileak izendatzeko aginpidetza eremua—.

1732/1994 Errege Dekretu horren bosgarren xedapen gehigarrian agindutakoa betez eta Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubideari buruzko Foru Arauak 40. artikuluan jasotako eskudantziak baliatuz (52/1992 Foru Araua), horren bertutez, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Beatriz Carrero Vegas andrea Laudioko Udaleko idazkari izendatzea aldi baterako, eginkizun horietan jardun dezan 2016ko azaroaren 25ean eta 2016ko abenduaren 28tik 30era (biak barne), titularra ez dagoen bitartean.

Bigarrena. Izendapenak aurreko idatz zatian adierazi diren aldietarako bakarrik izango du indarra.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesa dutenei, Laudioko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko azaroaren 7a

Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta

Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua

MARIA PILAR GARCIA DE SALAZAR OLANO

Lurralde Orekaren zuzendaria

IÑAKI GUILLERNA SAENZ